

Euskararen erabilpenaren neurketa

**10.000 biztanletik gorako herrietan
euskararen kale-erabilpenaren neurketa
(Datuen aurrerapena)**

Ondoren doana 1989ko Azaroan EKBk 10.000 biztanletik gorako Euskal Herriko herri guztietan egindako euskararen kale-erabilpenaren neurketaren emaitzen aurrerapena da. Datuen azalpen zehatza aldizkari hone-txen hurrengo zenbakian argitaratuko da herriz herriko da-tu guztiekin, proiektzioekin eta datu horiei beroriei buruzko azterketekin batera.

Neurketa garrantzitsua oraingo hau bi arrazoiengatik: batetik, gure hizkuntzaren diagnostikoa osatzeko falta zi-tzaigun daturik garrantzitsuena delako seguraski, eta biga-renik neurketaren beraren tamainagatik: Euskal Herrian 10.000 biztanletik gorako 53 udalerri dago, eta berorietan

«Neurketa
garrantzitsua
oraingo hau bi
arrazoirengatik:
batetik, gure
hizkuntzaren
diagnostikoa
osatzeke falta
zitzaigun daturik
garrantzitsuena
delako seguraski,
eta bigarrenik
neurketaren
beraren
tamaingatik»

«Neurturiko 47
herri horiek
2.010.500 biztanle
biltzen dute:
Euskal Herri
guztiko
biztanleriaren
% 69,57; guztira
329.860 lagun
izan dira
neurtuak,
% 16,41eko
batezbestekoa
beraz»

biltzen da biztanleria osoaren bi heren baino gehiago. Go-
goan izan orain arteko kale-neurketak udalerrri edo eskual-
de-mailakoak izan direla. Bi salbuespen aipagarriak dira
halere: Siadeco-k eginak biak, bata Gipuzkoa osoan
1983an egina eta bestea Ipar Euskal Herriko barnekaldeko
azterketarako inkestatuak izandako 44 herritan eginda-
koa.

Datuok beranduxe datoz; guk nahi genuena baino be-
randuago. Ia urtebete pasa izango da irakurleak eskura-
tzen dituenetarako. Horrek ere justifikaziorik ez, baina espli-
kazioa badu: datuon prozesatzeak inbertsio handiak eska-
tu dizkio EKBri, hala pertsonal eta ekonomia aldetik nola
prestakuntza informatikoari dagokionean, eta arazo horie-
tzek konpontzeko behar ziren laguntza instituzionalak ez
dira jaso, beste behin ere, hasiera-hasieratik Eusko Jaurla-
ritzari proiektuan parte hartzeko eskaintza egin nahi izan
zitzaion arren.

Hainbat arazo izan direla medio, 10.000 biztanletik go-
rako herri horietatik lautan ezin egin izan da euskararen
kale-erabilpenaren neurketarik: Leioa Bizkaian, Burlata eta
Tafalla Nafarroan eta Miarritze Lapurdin. Angelun (Lapur-
di) neurketa egin bai, baina kalean oso jende gutxi ibili ohi
denez neurturiko portzentaia txikiegia da baliagarritzat jo
ahal izateko eta horregatik Angeluko datuak ez ditugu ain-
tzat hartu. Azkenik, Zumarraga eta Urretxu herri bakar gi-
sa hartu ditugu neurketarako. Guztira beraz, 47 herri dira
kontutan hartzekoak (ikus eranskina).

Jakina denez, Nafarroa Beherean eta Zuberoan ez dago
10.000 biztanletik gorako herririk. Eranskinean zerrenda-
turiko 47 herri horiek 2.010.500 biztanle biltzen dute:
Euskal Herri guztiko biztanleriaren % 69,57. Hasierako as-
moa 2.010.500eko multzo horren % 20a neurtzea zen,
eta guztira 329.860 lagun izan dira neurtuak, %
16,41eko batezbestekoa beraz. 47 herri hauetan guztira
368.380 euskaldun biltzen da (Baionan izan daitezkeenak
zenbatu gabe), Euskal Herriko euskaldunen % 58,98 gutxi
gorabehera. Gutxi gorabehera diogu, Lapurdiko kostalde-
ko daturik kasu batzuetan ez dagoelako (Baiona, Angelu
eta Miarritze) eta gainerakoetan Pedro de Yrizarren
1972ko datuak besterik ez ditugulako.

Neurketa egiteko erabilitako metodologia hurrengo zen-
bakian azalduko dugu zehatz-mehatz, baina aurrera deza-
gun kasu hauetarako soziologi ikerketetan aritzen diren
enpresek ohizkoa dutena izan dela. Neurtzaileak EKB osa-
tzen duten elkarte, erakunde eta taldeetako partaide ziren:
500 inguru. Edozein euskaltzalek, eta are gehiago euska-
raren militante batek, erreala dena baino euskararen era-
bilpen-maila handiagoa 'entzuteko' duen joera inkontzien-
tea (eta zenbait kasutan kontzientea) ebitatzeko, 500

neurtzaileekin egin ziren bilera metodologikoetan garrantzi handia eman zitzaion puntu horri dagokionez zorrotzak izateari. Zentzu horretan azpimarra dezagun herriz herriko emaitzek ez dutela alde nabarmenagirik adierazten orain arte hainbat lekutan egin izan diren beste neurketa batzuekiko.

Sailkapenerako ereduak

Euskal Herriko herri guztiak bi erizpideren arabera sailkatu ditugu: biztanle-kopurua eta euskaldunen portzentaia. 42 tipologia guztira.

«47 herri hauetan guztira 368.380 euskaldun biltzen da (Baionan izan daitezkeenak zenbatu gabe), Euskal Herriko euskaldunen % 58,98 gutxi gorabehera»

	%0- 10 euskaldun	%10- 25	%25- 50	%50- 75	%75- 90	%90- 100
0- 1.000 biztanle	1- 1	1- 2	1- 3	1- 4	1- 5	1- 6
1.000- 5.000	2- 1	2- 2	2- 3	2- 4	2- 5	2- 6
5.000- 10.000	3- 1	3- 2	3- 3	3- 4	3- 5	3- 6
10.000- 25.000	4- 1	4- 2	4- 3	4- 4	4- 5	(4- 6)
25.000- 50.000	5- 1	5- 2	5- 3	(5- 4)	(5- 5)	(5- 6)
50.000- 100.000....	6- 1	6- 2	(6- 3)	(6- 4)	(6- 5)	(6- 6)
100.000tik gora	7- 1	(7- 2)	7- 3	(7- 4)	(7- 5)	(7- 6)

Neurketa honetan, 10.000tik gorako herriez ari garenez 1—1 tipologiatik 3—6 bitartekoak alde batera utzi ditugu. Esan beharra dago, gainera, hainbat tipologiatako herririk ez dagoela, oraingo, herriren batzuk urte gutxiren buruan biztanleriaren gorabeherak direla medio edo euskaldunen ugaltzea dela eta, tipologiaz alda bait litezke. Herririk gabeko tipologia horiek parentesi artean jarri ditugu goiko taulan. Baiona (eta bere kasuan Angelu eta Miarritze), biztanle-kopuruaren arabera sailkatu dugu soilik, ez bait dago euskaldunen portzentaiaaren inolako daturik. Hendaia eta Donibane Lohitzunerako Pedro de Yrizarrek 1973an argitaraturiko datuak hartu ditugu, berriagoen faltan. Hegoalderako 86ko zentsukoak erabili dira.

«Neurtzaileak EKB osatzen duten elkarte, erakunde eta taldeetako partaide ziren: 500 inguru»

Euskararen erabilpenaren emaitzak

«Herriz herriko
emaitzek ez dute
alde
nabarmenagirik
adierazten orain
arte hainbat
lekutan egin izan
diren beste
neurketa
batzuekiko»

Datuak multzoka emango ditugu, eta multzo bakoitzaren batezbestekoa beti: batetik Euskal Herriko batezbestekoa, bestetik herrialde bakoitzarena (gogoratu Nafarroa Beherean eta Zuberoan ez dagoela 10.000 biztanletik gorako herririk), ondoren herri-tamainaka, hau da, 10.000 eta 25.000 biztanle tartean dauden herrien batezbestekoa eta gauza bera tamaina bakoitzarekin, azkenik euskaldunen portzentaia araberako batezbestekoak, hau da, portzentaia horien araberako herrietan euskararen erabilaren batezbestekoa (gogoratu ez dagoela 10.000 biztanletik gorako herririk euskaldunen portzentaia % 90 baino altuagoa duenik). Tipologiakako eta herriz herriko datuak hurrengo zenbakian argitaratuko ditugu.

10.000 BIZTANLETIK GORAKO HERRIETAN KALE- NEURKETA

	EUSKALDUNEN PORTZENTAIK Multzo bakoitzeko biztanleekiko	EUSKARAREN ERABILPENAREN PORTZENTAIK (Kalean biztanle guztiek hitzegtzen duten totalaren arabera, eta ez euskaldunen totalaren arabera)				
		Guztira	Haurrak (0- 14 urte)	Gazteak (15- 24 urte)	Helduak (25- 64 urte)	Zaharrak (65etik gora)
Euskal Herria *	%18,32	%7,71	%11,37	%4,84	%6,65	%11,01

HERRIALDEKAKO DATUAK

Araba	%6,23	%2,36	%3,67	%0,82	%2,39	%2,14
Bizkaia	%13,40	%5,32	%6,77	%3,21	%4,95	%8,02
Gipuzkoa	%36,99	%17,00	%27,90	%11,34	%13,83	%23,63
Lapuri **	%8,31	%4,19	%7,24	%0,84	%3,60	%5,65
Nafarroa	%5,59	%1,66	%3,52	%1,10	%1,32	%0,52

HERRI- TAMAINAKA

10.000- 25.000 bizt.	%42,01	%23,54	%31,29	%15,16	%20,67	%36,90
25.000- 50.000*	%23,41	%6,88	%11,42	%2,74	%5,09	%13,54
50.000- 100.000	%10,44	%1,92	%3,08	%1,18	%1,72	%2,20
100.000tik gora	%9,99	%3,31	%5,28	%2,29	%2,98	%3,49

EUSKARAREN EZAGUTZA- TASAREN ARABERAKO MULTZOAK ***

%0- 10 euskaldun	%6,34	%1,72	%2,71	%1,17	%1,61	%1,54
%10- 25	%16,94	%5,04	%9,67	%2,67	%4,03	%5,83
%25- 50	%33,03	%13,23	%22,70	%7,90	%10,54	%19,13
%50- 75	%62,03	%31,37	%40,70	%15,94	%28,24	%50,87
%75- 90	%77,98	%64,65	%77,03	%59,13	%59,18	%77,87

Oharrak:

*: Baionako daturik gabe ezagutzari dagozkion portzentaietan, bai ordea erabilerarenetan. Hau da, atal hauetako euskaldunen portzentaia ateratzeko Baiona ez beste herri guztietako biztanleen eta euskaldunen kopuruak hartu dira.

** : Ezagutzaren portzentaia ateratzerakoan Hendaia eta Donibane Lohitzuneko euskaldunak soilik hartu ditugu kontutan, baina Hendaia, Donibane Lohitzune eta Baionako biztanle-goaren totalarekiko. Erabileraren datuak Baiona ere kontutan harturik eman dira.

***: Baiona ez da atal honetan kontutan hartu, bertako ezagutzari buruzko daturik ez dagoelako. Dena den, Baionan erabileraren portzentaia % 2,2koa denez, seguruenik bertako euskaldunak ez dira, inongo kasutan, % 10 baino gehiago izango.

Gogoratu datu hauek, esan bezala, Leioa (4-2), Burlata (4-1), Tafalla (4-1), Miarritze (4-?) eta Angelukoak (4-?) falta dituzte. Aipatu bost herriok oso erdaldunak direnez batezbestekoak jaitsi egingo dira kasu batzuetan apur bat eta besteetan dexente honako ataletan: Euskal Herria, Bizkaia, Nafarroa, Lapurdi, 10.000-25.000 biztanle tarteko herrien multzoa, % 0-10 euskaldunena eta % 10-25 euskaldunena.

Euskararen kale-erabilpenaren neurketaren emaitzen aurrerapen honekin amaitzeko biziki lagundu gaituen enpresa bat aipatu nahi dugu, lan ikaragarri honetan eskaini duen lan eskergaitzarengatik: Donostiako "APIKA-Informatika", zeinaren lan iraunkorra, eta bereziki Oskar Angulo bertako analistarena, funtsezkoa izan den laguntza ofizialen faltak ezarri dizkiguten eragozpen tekniko guztiak gainditu ahal izateko.

*«10.000 biztanletik
gorako herrietan
euskararen
kale-erabilpenaren
batezbestekoa
% 7,7 da»*

EKBko Idazkaritza Teknikoa

Eranskina:

Neurketa egin den 10.000 biztanletik gorako herriak

(Parentesi artean doa herri bakoitzaren tipologia)

Araba

Laudio (4-2)
Gasteiz (7-1)

Bizkaia

Trapagaran (4-1)
Ermua (4-2)
Zornotza (4-3)
Mungia (4-4)
Gernika (4-4)
Bermeo (4-4)
Ondarroa (4-5)
Sestao (5-1)
Erandio (5-2)
Galdakao (5-3)
Durango (5-3)
Santurtzi (6-1)
Portugalete (6-1)
Basauri (6-1)
Getxo (6-2)
Barakaldo (7-1)
Bilbo (7-1)

Gipuzkoa

Pasaia (4-2)
Lasarte (4-3)
Zumarraga-Urretxu (4-3)
Andoain (4-3)

Hernani (4-3)
Legazpia (4-3)
Beasain (4-3)
Elgoibar (4-4)
Tolosa (4-4)
Hondarribia (4-4)
Bergara (4-4)
Zarautz (4-4)
Oñati (4-5)
Azkoitia (4-5)
Azpeitia (4-5)
Erreterria (5-2)
Arrasate (5-3)
Eibar (5-3)
Irun (6-2)
Donostia (7-3)

Lapurdi

Hendaia (4-2)
Donibane Lohitzune (4-3)
Baiona (4-?)

Nafarroa

Antsoain (4-1)
Barañain (4-1)
Lizarra (4-2)
Tutera (5-1)
Iruñea (7-1)